

MOZIO ARRUNTA

DONOSTIA OSPITALE INGURUAN HELIAZALERA BATEN BEHARRAZ

Juan Karlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako **MOZIO ARRUNT** hau aurkeztu du, Donostia Ospitale inguruan heliazalera baten beharrari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Abuztuaren 3an jakin genuen nola helikoptero batek Donostiako ospitale aurreko errepidean lur hartu behar izan zuen paziente larri bat ospitalera eramateko. Honek harridura eta trafiko arazoak sortu zituen.

Horrelako leku aldaketak ohikoak izaten dira ospitaletan, baita gurean ere. Heliazalera ez dagoenez Donostiako Ospitalean, pazienteak ospitaletik anbulantzian Intxaurrenondoko Suhiltzaileen basera eramaten da, hango heliazaleran helikopterora pasa eta eraman beharreko lekura eraman gaixoa; edo alderantziz ingresoak Donostiako Ospitalean bada. Honek denbora luzatzea dakar eta gaixoaren egoera, berez larria dena, are gehiago okertzea.

Gogoratu dezagun odoljario subaraknoideoen tratamendu zentroa Donostiako ospitalea dela, baita Arabako herritarrentzat ere.

Beste alde batetik, emergentzia bat izan duten beste hainbat gaixo, egun, lurretik iristen da ospitalera nahiz Gipuzkoako beste muturretik etorri. Honek ospitaleko arta atzeratzea dakarrenez, gaixo batzuk Gurutzetara bideratu izan dira helikopterok.

Donostiako ospitaleak ere bidali ohi ditu gaixoak helikopterok beste zentroetara, Gurutzetako erretakoen unitatera edo Toledoko orno-muineko lesionatuen zentrora adibidez.

2023ko irailean EH Bilduk mozio arrunt bat aurkeztu zuen heliazalera eskatuz, eta aipatzen zen aurreikusten ziren obrak kontuan izanik, planifikatzeko une egokia zela hau. Mozioa onartu zen EAJ/PSEk aurkeztutako zuzenketa batekin, hauxe eskatuz: "Osdakidetzak aztertu eta zehaztu dezala leku egokiena Donostiako Ospitalean heliazalera eraikitzeko".

Geroztik ez dugu informazio gehiago jaso, baina itxuraz ez da aurreikusi horrelako azpiegiturarik.

Hori guztia dela eta, **mozio arrunt** hau aurkezten dugu:

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari Donostiako Osasun Hiriaren definizioa eta plana osatzeko eta egunerokoan bertan eskaintzen den osasun arreta hobetzeko xedearekin, aurreikusi eta abian dituen lanen barruan heliazalera bat eraikitzeke lanei ekin diezaiela.

Donostian, 2025ko maiatzaren 9an

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH BILDU udal taldeko bozeramailea